Iniciativa anual de reflexión, proposición y divulgación de Baketik

Ŕ

acento
2015
para una nueva cultura de
convivencia y reconciliación

# Participación social

## Energía necesaria para el proceso de paz

baketik

enero de 2015

# Presentación

En enero de 2011, Baketik puso en marcha el proyecto «Acentos para la reconciliación». Una iniciativa consistente en la presentación a principios de cada año de un documento orientado a contribuir a una nueva cultura de convivencia y reconciliación en nuestra sociedad.

El primer acento se tituló «Bases para enmarcar y promover de modo compartido un proceso de reconciliación». El «Acento 2012» se tituló «Cinco propuestas concretas» que iban dirigidas a los ámbitos político, municipal, educativo, asociativo y de la vida cotidiana. El Acento 2013 proponía una alianza estratégica de Ayuntamientos y centros educativos para promover la convivencia en el ámbito local. Y el Acento 2014 defendía la humanización como punto de encuentro constructivo desde el que reducir los sufrimientos personales y colectivos y recomponer las relaciones humanas, sociales y políticas.

El Acento 2015 quiere promover la reflexión y el compromiso con la participación de la sociedad vasca en el proceso de paz desde la convicción de que esta puede aportar una energía fundamental para su consolidación.

# Un diagnóstico

La participación de la ciudadanía es el pilar sobre el que se basa nuestra democracia. De ella emana el poder y a través de ella formalmente se constituyen las instituciones de las que nos hemos dotado. En el caso de un proceso de paz y convivencia como el que se encuentra nuestra sociedad, la participación social es clave. Los partidos políticos tienen una responsabilidad fundamental pero el proceso no es una cuestión exclusiva de ellos. La convivencia en una sociedad remite a todas y cada una de las personas que la conforman y, por lo tanto, su participación directa es vital.

La situación actual objetivamente ha mejorado mucho. La idea de que nos encontramos ante un nuevo tiempo está totalmente consolidada. De la misma manera, cada vez más personas son conscientes de que este nuevo tiempo abre una oportunidad que debe ser aprovechada para promover una nueva convivencia.

Sin embargo, este momento para la esperanza se encuentra amenazado no tanto por una eventual marcha atrás en el proceso de paz como por una cronificación de este estancamiento que padecemos y por el deterioro que pueda acarrear.

Este bloqueo de la situación tiene que ver con desacuerdos sobre cuestiones centrales del proceso ante las que agentes políticos, institucionales, internacionales, sociales, asociaciones de víctimas y otros directamente emplazados como ETA o las personas presas expresan puntos de vista divergentes.

Ante este escenario, Baketik quiere poner el acento en la participación de la sociedad. A la vista de las diferentes encuestas, se puede vislumbrar que lo que en el ámbito político es un desacuerdo, en la sociedad no lo es tanto e incluso se perciben consensos. Por ello, Baketik sugiere explorar esta oportunidad, ofreciendo a la sociedad vías para su participación directa en el proceso.

# Propuesta

Baketik quiere proponer el impulso de procesos participativos sobre cinco cuestiones centrales. Sus respuestas pueden ser claves para colaborar en la superación del estancamiento actual del proceso. Las cinco cuestiones neurálgicas sobre las que se asientan los actuales bloqueos son las siguientes:

·**Desarme**. El desarme y la disolución de ETA.

·**Víctimas**. Las políticas de verdad, justicia y reparación para todas las víctimas.

·**Memoria**. La memoria crítica del pasado en relación con la violencia en cualquiera de sus formas.

·**Presos/as**. La política penitenciaria y las políticas de reinserción.

·**Convivencia**. Los compromisos básicos para la reconciliación de la convivencia.

Baketik propone a todos los agentes políticos y sociales promover procesos participativos que permitan conocer la opinión de la sociedad sobre esta agenda de cuestiones. Se entiende por estos procesos, todas aquellas acciones o dinámicas que promuevan el conocimiento de las reflexiones de la sociedad, tales como las encuestas, las consultas a través de las nuevas tecnologías, el uso de aquellas metodologías de tipo participativo, así como las consultas municipales, o una consulta no vinculante para el conjunto de la sociedad vasca.

En este sentido, Baketik hará de la participación uno de sus ejes de acción para este año 2015. Desde su implicación directa en los programas de promoción de la convivencia a nivel local, se promoverán procesos participativos tipo World Café en diferentes municipios en torno a las preguntas que se consideran más relevantes para superar el actual estancamiento.

Baketik-en urteroko gogoeta-, proposamen- eta dibulgazio-ekimena

Ŕ

bizikidetza- eta adiskidetze
kultura berri baterako

# 2015 indargunea

# Parte-hartze soziala

## Beharrezko energia bake prozesurako

baketik

2015eko urtarrila

# Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Adiskidetzerako Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtearen hasieran, geure gizartean bizikidetza- eta adiskidetze-kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Adiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena». Eremu desberdinetara (politikoa, udal mailakoa, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza) zuzenduak zeuden «Bost proposamen zehatz» izenburua zeraman «2012 indargunea»k. 2013koak aliantza estrategikoa proposatzen zuen Udalen eta ikastetxeen artean herri mailan bizikidetza bultzatzeko. Eta «2014 indargunea»k humanizazioa defendatzen zuen sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murrizteko eta giza harremanak zein sozialak eta politikoak berreraikitzeko elkargune eraikitzaile gisa.

Bake prozesuan euskal gizartearen parte-hartzearekiko gogoeta eta konpromisoa bultzatu nahi ditu 2015 indarguneak, uste sendo batetik abiatuta: bake prozesua sendotzeko funtsezko energia eskaini dezakeela gizarteak.

# Diagnostikoa

Gizartearen parte-hartzea geure demokraziaren oinarrian dagoen zutabea da. Honetatik boterea k dario eta honen bidez geure instituzioak eratzen dira formalki. Geure gizartea bizitzen ari den bake- eta bizikidetza-prozesua bezalako batean, parte-hartze soziala funtsezkoa da. Alderdi politikoek nahitaezko erantzukizuna dute baina prozesua ez da beren kontua soilik. Bizikidetza gizartea osatzen duten pertsona guztiei eta bakoitzari dagokie eta, beraz, gizartearen parte-hartze zuzena ezinbestekoa da.

Egungo egoera asko hobetu da, hori objektiboa da. Garai berri baten aurrean gaudenaren ideia erabat sendotuta dago. Era berean, geroz eta pertsona gehiago jabetzen dira garai berri horrek bizikidetza berria sustatzeko probetxu atera behar zaion aukera bat zabaltzen duela.

Hala ere, itxaropenerako garai hori mehatxatua dago ez hainbeste bake prozesuan balizko atzerapauso bategatik bizitzen ari garen geldialdiaren kronifikazioagatik eta horrek ekar dezakeen hondatzeagatik baizik.

Egoeraren blokeo horrek prozesuaren gai nagusiei buruzko desadostasunekin dauka zerikusia. Gai hauen inguruan elkarrengandik urruntzen diren kuspegiak adierazten dituzte eragile politikoek, instituzionalek, nazioartekoek, sozialek, biktimen elkarteek eta baita zuzenean deitutako beste batzuek ere (ETAk zein preso dauden pertsonek).

Eszenategi horren aurrean, Baketik-ek gizartearen parte-hartzean jarri nahi du indargunea. Inkesta desberdinak ikusita, eremu politikoan desadostasuna dena gizartean ez dela hainbeste eta adostasunak ere hautematen direla ikus daiteke. Horregatik, Baketik-ek aukera hori esploratu nahi du, prozesuan parte-hartze zuzenerako bideak eskainiz gizarteari.

# Proposamena

Baketik-ek bost gai nagusien inguruan prozesu parte-hartzaileak bultzatzea proposatu nahi du. Horien inguruko erantzunak klabeak izan daitezke egungo prozesuaren geldialdia gainditzen laguntzeko. Egungo blokeoak kokatzen diren funtsezko bost gaiak honakoak dira:

·**Desarmea**. Desarmea eta ETAren desegitea.

·**Biktimak**. Biktima guztientzako egia-, justizia-, eta erreparazio-politikak.

·**Memoria**. Edozein motatako indarkeriaren aurrean, iraganari buruzko memoria kritikoa.

·**Presoak**. Espetxe-politika eta bergizarteratze-politikak.

·**Bizikidetza**. Bizikidetzaren adiskidetzerako oinarrizko konpromisoak.

Gai sorta honen inguruan gizartearen iritzia ezagutzea ahalbidetuko duten prozesuak bultzatzea proposatzen die Baketik-ek eragile politiko eta sozial guztiei. Prozesu hauen barruan gizartearen gogoetak ezagutzea sustatuko duten ekintza eta jarduera guztiak kokatzen dira: inkestak, tekologia berrien bidezko kontsultak, metodologia parte-hartzaileak erabiltzea, eta baita udal-kontsultak edo euskal gizarte osoarentzako kontsulta ez loteslea ere.

Zentzu honetan, 2015erako jarduera-ardatz hartuko du parte-hartzea Baketik-ek. Udal mailan bizikidetza sustatzeko egiten ari den lanetik abiatuta, World-Kafe motako prozesu parte-hartzaileak bultzatuko dira udalerri desberdinetan egungo geldialdia gainditzeko garrantzitsutzat jotzen diren galderen inguruan.